

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

5079

1902/2022 EBAZPENA, urriaren 27koa, Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez Jon Imanol Argote Achalandabaso jaunari Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako Erakunde Sanitario Integratuko Trapagaraneko Lehen Mailako Arretako unitateburuaren eginkizunak esleitzen zaizkion.

426/2022 Ebazpenaren bidez onartu zen Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESIan Trapagaraneko Lehen Mailako Arretako unitateburua izendatzeko deialdi publikoa.

Batzordeak baloratu egin ditu aurkeztutako eskabideak, eta dagokion izendapen-proposamena egin du. Horiek horrela, Jon Imanol Argote Achalandabaso jaunak dituen ezagutza akademiko eta profesionalak kontuan hartuta, erabaki da hari esleitzea Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESIan Trapagaraneko Lehen Mailako Arretako unitateburuaren eginkizunak.

Beraz, bat etorri Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikulua hiru garren arau komunarekin, Osakidetza lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuarekin eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuarekin,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Jon Imanol Argote Achalandabaso jaunari esleitzea Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESIko Trapagaraneko Lehen Mailako Arretako unitateburuaren eginkizunak.

Bigarrena.– Jon Imanol Argote Achalandabaso jaunak bi eginkizun izango ditu: kudeaketa eta asistentzia ematea; eta Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako Erakunde Sanitario Integratuko gerentearen mende egongo da zuzenean eta hierarkian. Bai Lehen Mailako Arretako unitateburu funtzioak egin bitartean bai haiek amaitu ostean, titulartasunari eutsiko dio bere kategorian dagokion plazan, eta hari lotutako oinarrizko funtzioak betetzen jarraituko du.

Hirugarrena.– Izendapen honek ez du inolaz ere ekarriko Lehen Mailako Arretako unitateburuaren eginkizunak edo ordainsariak finkatzerik berariazko lanpostu gisa; izan ere, noiznahi erabaki daiteke eginkizun horien esleipenari amaiera ematea.

Laugarrena.– Interesdunak, eginkizun horietan diharduen bitartean, ardura bereziko osagarria jasoko du.

Bosgarrena.– Izendapen honek 2022ko azaroaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

Seigarrena.– Ebazpen hau interesdunari eta Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESIari jakinaraztea.

Zazpigarrena.– Ebazpen honen aurkagorajotzeko errekurtsua aurkez dakioke Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Barakaldo, 2022ko urriaren 27a.

Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESIko zuzendari-gerentea,
MARÍA LUZ MARQUÉS GONZÁLEZ.